


Euskal AEko BPG hiruhileko arteko %0,3 hazi da 2013ko laugarren hiruhilekoan

2013. urte osoan BPG %1,2 murriztu da

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %0,3ko hazkundera izan du 2013ko laugarren hiruhilekoan aurrekoaren aldean, urtaro- eta egutegi-eraginak kenduta, Eustaten aurrerapen-datuen arabera. Espainiako ekonomiaren hiruhilekoen arteko aldakuntza, INEk aurreratutako datuen arabera, %0,3 izan da, baita ere.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, urte arteko tasak %0,3 egin du atzera, eta horrela hobera egin du ehuneko zortzi hamarrenez hirugarren hiruhileko urte artekoak (%-1,1). Espainiako ekonomiarako, %-0,1 izan da urte artekoa.



Urtaroren eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapena. Erreferentzia urtea, 2010

Eskaintzaren ikuspuntutik, hiruhileko arteko hazkundera batez ere lehen sektoreko, eraikuntzako eta merkatuko zerbitzuetako ekarpenei zor zaie. Urte artean sektore guztiek dauzkate tasa negatiboak laugarren hiruhilekoan, industrian izan ezik, non beheraldiak zortzi aldiz jarraian eduki ondoren aurreneko aldiz lortu baita urte arteko ez-negatiboa.

Enpleguan (dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan) %0,1eko hazkunde txikia dugu hiruhileko artean, galerak hamahiru aldiz jarraian izan ondoren. Urte artean enpleguak %1,0 egin du atzera laugarren hiruhilekoan, aurrekoetan baino gutxiago.

2013. urterako eginiko lehen zenbatespenean BPGn %1,2ko jaitsiera dugu, Espainiako ekonomian bezalaxe.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko datu-bankua